

IRIZPIDEAK ETA BAREMOA

A) Familia-unitatearen urteko errenta = GEHIENEZ 1,5 puntu

- 2018ko errenta-aitorpenaren zerga-oinarri orokorraren eta aurrezkiaren zerga-oinarriaren baturak ez badu 10.302,60 euro gainditzen: 0,5 puntu.
- Eskatzailea ez den seme-alaba adingabe bakoitzeko: 0,25 puntu.

B) Bizilekuaren gertutasuna (kontzeptu hauek ez dira metagarriak) = GEHIENEZ 5 puntu

- Bizilekua, ikastetxearen eragin-eremuan badago: **5 puntu.**
- Bizilekua, ikastetxearen eragin-eremu mugakide batean badago: **2 puntu.**
- Bizilekua, udalerrian badago, baina haren eragin-eremutik eta eremu mugakideetatik kanpo: **1 puntu.**
- Bizilekua Euskal Autonomia Erkidegoan: 0,5 puntu.
- Eskatutako ikastetxearen eragin-eremuan dago aitaren, amaren edo legezko tutorearen lantokia: 2 puntu (puntu horiek bateraezinak dira ikaslearen aitak, amak edo legezko tutoreak eskatu den ikastetxean edo ikastetxe atxiki batean lan egiteagatik ematen diren puntuekin).

C) Ikastetxean ikasten edo lan egiten duten senideak izatea (kontzeptu hauek ez dira metagarriak). GEHIENEZ 9 puntu

- Neba-arreba bat edo gehiago matrikulatuta izatea: **9 puntu.**
- Eskatutako ikastetxean lan egiten dute aitak, amak edo legezko tutoreak: 7 puntu (puntu horiek bateraezinak dira ikaslearen aitak, amak edo legezko tutoreak eskatu den ikastetxearen eragin-eremuan lan egiteagatik ematen diren puntuekin).

D) Familia ugariko kide izatea.

- Maila orokorreko familia ugariko kide izateagatik: **1 puntu.**
- Maila bereziko familia ugariko kide izateagatik: **1,5 puntu.**

E) Familia-harrerako egoera.

- Ikasle eskatzailea familia-harreran egoteagatik: **1 puntu.**

F) Desgaitasuna = GEHIENEZ 2 puntu

- Ikasle eskatzailearena baldin bada: 2 puntu.
- Aitarena, amarena, legezko tutorearena edo neba-arrebarena: 1 puntu.

G) Kooperatiba-bazkide izatea.

- Familia unitateko kideren bat eskatutako ikastetxeko kooperatiba-bazkide izateagatik: **0,5 puntu.**

H) Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenak edo Eskola Kontseiluak.

- **1 puntu:**
 - OOGk onesteko dauka.

